

## Hilaren 27an izango da Arratiako Maratoi Txikiaren 43. edizioa

Nagusiak, 10:15ean urtengo dira Zeanuritik eta hara joateko autobusa egongo da Igorretik. 2007 eta 2011 bitartean jaiotakoak, 10:30ean urtengo dira Arteatik eta txikerrenek Igorren egingo dabez edadearen araberrako lasterketak. Izena aurretik emon daiteke *online* edo egunean bertan Igorreko eskola aurrean.

10. orrialdea



## Atef Abu Saif Artean egon zan

**A**tef Abu Saif Palestinako Aginte Nazionalako Kultura ministro ohia eta idazlea, Berriak, Elkarrek eta Mundubatek argitaratutako *Gazako egunerokoa* bere liburua aurkeztu eban urri bigarrenaren 6an, Arteako Herriko Bentan. Beragaz egon zan Amagoia Mujika, Berria egunkariko zuzendaria.

Abu Saif Gazako Jabalia errefujia-  
duen esparruan jaio zan eta bertan egon zan urtea bete dauan gerra honen lehenengo 40 egunetan. Bizirik irauteko zailtasunaz egin eban berba eta Israelek palestinar guztiak hil gura dituala eta nazinoarteko komunitatearen onarpen konplizea salatu eban. **8. eta 9. orrialdeak**



## Harriketarrak Gazte Asanbladeak, 25 urte



Lemoako Harriketarrak Gazte Asanbladeak 25 urte bete ditu eta urri bigarrenaren 25-27 astegoienean ospatuko dabe urteurrena, lehenengo eta oingo asanbladakideak batuz. Dokumentala, kontzertuak, kuadrillen olimpiadak eta bazkaria, besteak beste antolatu ditue astegoi horretarako. Aurretik be, hainbat jarduera antolatu ditue. **7. orrialdea**

### ARRATIA

## Zeanurin, Areatzan eta Diman berbaldiak eta ibilbide gidatuak

Ondarearen Europako Jardunaldietako programearen barruan, urri bigarrenaren 18an, *60 urte Arratiako tranbia barik* berbaldia egingo dau Jon Urutxurtuk Zeanurin; Areatzan, *Del Camino Real al Tranvia de Arratia* ibilbidea eta Diman, *Baltzola-Indusi, ibilbide magikoa* hilaren 27an. **12. orrialdea**

### UBIDE/ZEANURI

## Larren Mankomunitatearen XII. Zeharkaldia, hilaren 26an

Egun horretan, Ubide eta Zeanuriko udalek larreen mankomunitateko kontuen kitapena egingo dabe eta batzar hau aprobetxauz, Zeanuri-Ubide Larreen Mankomunitatearen XII. Zeharkaldia egiteko aukerea be eskainiko da. Zeanuriko plazatik 10:00etan urtenda, ibilaldiak 12 kilometro inguru ditu. **5. orrialdea**

### ZEBERIO

## Bizkaibus zerbitzua hobetuteko ekarpenak egin daitezke

Zeberio Udalak galdetegi bat ipini dau eskuragarri *online* eta etxeetara banandu dau, herritarren Bizkaibuseko A3928 linearen gaineko eretxiak jasoteko. Galdetegien emaitzak Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazo eta beharrezko alegazioak egingo ditu. Urri bigarrenaren 18a baino lehen bete eta udaletxean entregatu behar da galdetegia.

Aukerea izan ezkerro, herritarrek garraio publikoa gehiago erabiltzeko leku jakin gura izan dau Udalak eta ordutegiaren eta guralen inguruko galderak egiten dira galdetegian. **6. orrialdea**





## ZEURE BERBEA

### Txertoak eskoletan ez

Azken bolada honetan administrazioa bultzatzen dabilen eskoletako txertaketa kanpainearen gehikuntzaren aurrean, hurrengo lerroen bidez, Aske Bizi Arratien taldeak ezinbestekotzat jo dau umeak eta gazteak eskola eta ikastetxeetan txertatzearen kontrako gaitzespena adierazotea, eta horren gelditzea eskatzea.

Eskolea irakaskuntza oinari dauan Hezkuntza arloa izateaz gainera, umeen garapen kognitiboa, soziala, emozionala, psikologikoa eta afektiboa babesteaz arduratu beharko litzatekeen erakundea da. Aitatu beharra dago eskoleak inoz ez leukela bete eta emon beharko osasun zentro batek emoten dauan zerbitzua. Azpiegitura alde-rik ikastetxeak horretarako prest ez egoteaz gainera, ez dira ume eta gazteak txertatzeko lekua.

Ez daigun ahaztu, haurrak txertatzeaz dihardugula eta, gure ustez, horri merzei dauan garrantzia emon behar jako eta beharrezkoak diran baldintzetan gauzatu behar da. Beti be familiaren esparruan, erantzukizun hau familiarena izan beharko litzateke eta, eta inoz be ez irakasleriarena. Jakin badakigu txarto ulertuak eta arazoak egon dirala eta arazo honeek, familia esparruan eta jagokan lekuan, hau da, osasun zentroan, egin ezkerro

ekidingo lirake. Beraz, Hezkuntzari jagokozan kontuak eta osasungintzari jagokozanak erabat bereizita egon behar diralakoan gagoz; hau da, bakotxari berea.

Era berean, txertaketa garaian, umeak eta gazteak txertatu ala ez ebatzi eta baimendu aurretik, gurasoek argi izan beharko leukie zeintzuk izan daitezkezan txertoen albo-kalteak; izan be, eskolatik bidaltzen deutseezan oharretan, txertoen bigarren mailako efektuak urriak eta, jeneralean, arinak dirala aitutzen da, baina ez dira inondik be zehazten. Horren aurrean, gurasoek ondo jakin beharko leukie zer sinatzen daben, jakitun egon daitezke euren seme-alabei zeozer gertatu ezkerro, eurak izango dirala horren erantzule bakarrak.

Gainera, txertaketak ikastetxeetan egiteak umeen datuen pribadutasunerako eskubidea urratzen dau. Txertaketak norberaren historia klinikoaren parte dira, eta kasu honetan, umeen eta gurasoen pribadutasunean mantentidu beharrezkoak dira. Inork ez dau zertan jakin nork hartzean dauan txertoa eta nork ez, ezta zein txerto hartzean dauan be.

Horrenbestez, eta goian aitatutako errazoiak dirala-ta, Aske Bizi Arratien taldeak ikastetxeetan txertatzearen kontrako eretxi argia dauka, eta eskoletan eta ikastetxeetan egiteari ixteko eskatzen dau. Eta konbitea luzatzen dogu eskolek be jarkera eta ekimen bera bideratu dagien.

ASKE BIZI ARRATIEN

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

## ERETXIA

### Golema

Pragako errabino handia zan Loew. Gau batez -getoa ilunpean- buztinezko giza-irudi handi bat egin eban erreka errebueltara bajatuta: etxundako erdi-gizon erdi-makina bat, arpegia hareazkoa, besoak erramak, hankak habeak. Zazpi zenbakia errepikatu eban Loewek, Toraren azal baltzean urre gorizko letrak dir-dir egiten eban. Egon be, juduak bildurkilik egozan, eta terrore harek sortu eban Golema, salbazino moduan. Errabinoak "emet" idatzi eutsan bekokian -egia, hebreeraz- eta halaxe biztu eban. Ze buztinezko ha morrosko ha, erregular, kabalearen eraginez, altxau egin jakon eta oinez hasi jakon irudimenean Loeweri, Pragako errabino handi-txikiari, eta kaleko kantalean parau jakon zutunik, teilatuen gainetik Europako tximinietako keari begira, mende batzuk geroago hain famadu egingo ziran heriotza esparruetako tximinien kearen antzeko kea, esan daigun bide batez.

Borgesen *Golem* poemea be, irakurri badozu, badakizu lupe-tzeko magma bat dala zutunik paretan dana halako baten, badakizu leloka-leloka hasten dala Sokrates aitatz, eta hizkuntzearen benetako izakerea zein dan jakin guran hasten dala, baina hori da terroreena, berbak zelau manipulu leitekezan: zer da terrorismoa, zer legea? Hiztegi desbardinetan modu berezian deklinaturik ikusi dodaz nik.

Borgesen *Golem* poemeak hirurogeta hamabi lerro daukaz, eta hirurogeta hamabi kiloko bonbak daukaz Netanyahu F15etan jarririk, eta entzuten da zeruan elektronika hotsa, eta egin bedi zure nahia lurrean bere, eta Borgesen *Golem* poeman ahapaldiak doaz 11A 11B 11A, Gazako etxeen helbide desagertuen antzera 11A 11B 11A.

"Larritasun eta argi lausoak,/ bai, Golema kontenplazten ari da./ Zertzuk pentsetan eban Jainkoak/ bere errabinoari begira?".

Juduak defendiduteko asmatu-



IGOR ESTANKONA

Idazlea

takoa, Golema. Bildurrak sortua Europa biolento baten, Golema. Baina eskapau jakie munstroa, eta inori jaramonik egin barik doa, zorrotasunez dabil beteten berari agindutako zatia: nerabe bat genitaletan tirokatu, mediku preso bateri burdin gorria atzetik sartu, aita ama sei seme-alaba guriak lurrundu posporo zuriz.

Joan ziran inoren etxera, bota ebezan handik, eta oin eurak dira biktimak, musika teknoa ipinten dabenak konzentrazino zelai modernoan ateetan. Eta *Nos vivos en Berlin* kantetan dogu eta haserretu egiten dira, edo haserretu plantak egiten dabez, ze ez da gauza bera, eta gizon baten ahoa Jainkoaren ahoa izan leiteke, Jainkoaren ahoa dala pentsetan badozu, baina inor ez dala Jainkoa, eta jainkoa ez dala inor, noz konturatuko ete dira lurralde santuan?

Golemaren antzera, bortitz eta kontrolaezin dago gaurko Praga. Loew errabinoak, bekokian "emet" idatzi eutsan harek, aleph hizkia borrau eutsan azkenean, eta "emet" hitza "met" bihurtu zan: heriotza. Halaxe lokartu eban betiko, eta giltzez itxi sinagogako kamaran.

Golem zinemetatik urtengo da, akaso, hurrengo manifa.

## Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

### Hitanoagaz hasteko aholkuak (LIV). Kale berbakunea sustatu guran

#### EUSKEREAREN EGOEREA

-Hi konturatu **haz** mendebaldeko euskerea galtzean dabilala, **eztok?**

-Mendebaldekoa?

-Bai! Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako mendebaldean egiten dana!

-Hiru probintzian egiten dan bakarra!

-Bai! Halan **dok!**

-Gazteek **etxakiek** aditzak esaten eta edozelan esaten **jauriezak!**

-Zelan jakingo **jauriezak** ba, eskolan batua baino **etxotziek** irakasten eta!

-Hobeto bertakoa erakutsiko baleutsie!

-Jenteak kalerako euskerea **behajok...** eta ez akademikoa!

-Filologoena **balitzok** behintzat!

-Egungo euskera ofiziala euskara **dok** bata!

-Bai, betiko berbakune polita galtzean **jabik** eta euskara **jabik...**

-Xarma bako euskereak **etxekok** etorkizunik!



## LUMATUTEN



## XABIER LAMIKIZ

## Jerusalem, 2012

**2**012ko abuztua zan. Urielek, nire israeldar lagun minak, Jerusalem hegoaldeko mendixka batera autoz eroan ginduzan. Uri osoa ikusteko leku aparta zan. Begi bistan geunkan uri zahar zoragarria, eguzkipean, milaka urteko harresiz inguratua. Barruan, kale estuak eta santutegiak nongura. Ha-ta guzti be, harresitik kanpo egoana zan batez be deigarria. Ipar-ekialdean, uria baino harago, zenbait mendi eta mendixka ikusten ziran. Ezagunena Biblian aita-tzen dan Olibondoen mendia. Mendebaldean uri modernoa: eraikin barriak, lorategidun eta zugatzdun parkeak, kale garbiak. Bartzelonaren antza hartu neutsan. Harresiaren ekialdean, aldiz, etxe zapal zuri metatuak, inguruan parke barik, lorategi barik, zugatz barik, baina teilatuak antena parabolikoz josita. Ekialderago Jordan ibaira daroan aldatz behera, lurra basamortua bezain lehorra, Zis-

jordania. Egun batzuk ziran Jerusalem ekialdeko hotel merke baten gengoza eta ordurako bagenkian mendebalde-ekialde banaketa bi gizarteren arteko arrakala sakona zala. Bagenkian be, gatazka barri bat edozein momentutan biztu eitekela. Hasserrea eta gorrotoa sumatzen ziran. Tartean mundu paralelo bat: turistak gora eta behera. Urira begira gengoza Urielek zera bota eban: "Badakizue Israelen nortasun agiriaren koloreak uritarren erlijinoaren edo talde etnikoaren barri emoten dauala? Holan bereizten doguzala judutarrak eta palestinarrak?" Urielen hainbat senide kontzentrazino eremuetan hil ebezan Bigarren Mundu Gerran. Sasoi haretan naziek judutarrak bereizgarri horiak eroatera behartu ebezan. Horren gainean aspaldi egin eustan berba Urielek, biok Londresen bizi ginanean. Baina oin esan eustan ez ninduan gitxiago erasan. Min handia emoten eutsan, baina esan beharra eukan: "Israelgo gobernuak, nire gobernuak, herritarrak daukan politikea Hirugarren Reichak eukanaren antzerakoa da".

## ZERTZEAN



## KARLOS ARETXABALETA

**E**ntzun dut bai, azken boladan herrian aldaketa nahikotxo jazo direla, baina, ondo baderitzozu, gaurkoan ez dut ez herriari, ez lagunei ezta aberriari buruz ere hitz egin nahi. Nazka eginda nago aspaldian. Zurekin egon nahi dut, besterik ez. Nahikoa denbora dut horri buruz hitz egiteko hemengo kideekin eta lagunekin.

Bestalde... hara! Ilea moztu duzu, eta nik orain arte deus ere esan gabe. Kartzelaz aldatu nindutenean ere horrelako sorpresa bat eman zenidan. Itzel luzitzen dizu, bai horixe. Gustuko dut bai. Tira, nahiago nuen hamazazpi urterekin koloretako zapiekin biltzen zenuenean, kar kar kar. Darabilzun lurrina ere maite dut, zelan ez, laztana nirea. Nire gorabehera guztiak ezagutu dituen hori berori.

Bai, barkatu, gaur berrius nago oso-osoa. Zu ikustean ilusioa izango da, akaso. Aurreko bisita hain labur begitandu zitzaidanez... Ordu bete eta erdi besterik ez, putakumeak. Lasai, hemen barruan ezin gaituzte entzun, edo hori espero dut nik, behintzat.

Bai, neuk ere maite ditut zeure musuak, laztana nirea...

Zeure musuak, zeure nortasuna, ausarta oso, zeure ilea, zeure janzkera, zeure izaera. Horregatik ba besarkada luze honetatik askatzen garenean, ferekekin laztanduko dizut lepoa, eta bizarrarekin kilimatuko dizut besoa. Gero zeure bular finak sostengatuko ditut, esku banatan, eta mertxikak balira bezala estutuko dizkizut, goxo-goxo, zure gorputzaz maiteminduta nagoela igari dezazun, ahaztu ez dakizun.

Ez, ez da izango munduko lekunik erosoena "zita" bat izateko, ezta ederrena ere, laztana, baina ohe purzil hau eta presondegiko ziega hotz hau gure ametsetako baserri bihurtuko ditugu. Lasai egon, ez baitiegu zeure gozamen aurpegia ikusten utziko, ez diegu plazer hori emango presozainei. Eta umeak bagina bezala izara eta mihise artean galdu egingo gara zu eta biok, laztana.

Besarkada honetatik askatzen garenean, neronek hartuko dut inizatiba eta hainbeste maite dituzun atzamarrekin jostatuko naiz zeure hankartean, harik eta zeure azken intziria entzun arte. Haatik, lasai, honezkerok geldituko zaigun ordu erdiari etekina aterako baitiegu, eta gutunetan esan bezala, zu eta biok pertsona bakarra bilakatuko gara. Ezti-mamitan dantzatuko gara ohe zikin horretan, baina ez digu axolako, Pirinioetako borda zikinagoetan hamaika bider amodioa egin dugulako.

Laztana, zer da ba amodioa...

DUM, DUM, DUM!! IIR ACABANDO CABRONES, QUE YA HA PASADO HORA Y MEDIA!

\* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerok, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**P**asau dan astean, kalabaza bat ikusi neban supermerkaduan eta erostea pentsau neban. Kalabaza sasoia da eta seguruenik ez zan izango urrunekoa, baina supermerkaduetan ez dago fidatzerik eta beti begiratuten dot jatorria. Deskuidau ezkerok, Hego Afrika edo Hego Ameriketako izan daiteke-eta. (Nire erosketa eskeman, kalabaza batek ezin ditu 100 kilometro baino gehiago egin ekoiztu dan lekutik nire platerera).

Prezioaren ondoan egoten da jatorriaren informazioa. Baina zorioneko kalabaza honen jatorria jakiteko QR bat eskaneau behar zan. Benetan? QR bat erabili behar dot, Internet erabili behar dot, ADSL, zuntz optiko edo satelite bidezko teknologia bat printzipioz hemen ekoiztutako barazki bat erosteko? Esan beharrik ez dago, ez nebala erosi.

Atzen urte biotan, QR-ak udagoienean perretxikoak baino gehiago ugaritu dira. BEGITURA artikuluren bat bialdu gura dabenak be hasi dira dokumentua atxikitu beharrean, QR-ak bialtzen. Aurreko Dunba bateko artikulua irakurteko QR batzuk zabaldu behar ziran. Benetan? Papereko aldizkaria irakurteko be Internet erabili behar dot?

Instituzinoak hartu-emonetarako QR-ak nongurako bihurtu dira. Udal aurrekontuetarako ekarpenak egiteko zein kirol edo kultura jardura baten izena emoteko, *online* egitea ia aukera bakarra da.

Eta gero, osasun mentalaren izenean, gazteek pantailak hainbeste ez erabilteko kanpainak egingo dira, mobikorraren erabilera atzeratzeko alkarteak sortuko... Egunerokotasunean, kalabaza bat be ezin danean erosi internet barik.

QR-en inbasioaren kontra, erresistentzia!



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostisl.com](mailto:gorosti@gorostisl.com)

**BEER & EDARIAK**  
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkoitz 677 46 40 91  
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • [beeredariak@gmail.com](mailto:beeredariak@gmail.com)

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologia

Bidebarri 1. behea  
48140 Igome-Bidaka  
T. 94 631 50 39  
Idazgela Zerbitzu 101  
R.P.S. 31/06

LEMOA

## Eskolako janlekuagaz batera ipini da martxan barrero hozkailu solidarioa

### Erredakzioa

Lemoako Udalak J.B. Eguzkitza Meabe ikastetxeagaz batera, hozkailu solidarioa proiektua ipini dau martxan, jatekoa botatea saihesteko eta hodakin organikoa murrizteko. Hozkailua, jubiladuen tabernaren sarreran dago eta bertan, ikastetxeko janlekuan sobrautako jatekoa, modu seguruan biltegitatu eta herritarren eskura ipinten da. Egunean, batez beste, 20 errazino inguru berreskuratzen dira.

Sano balorazioa ona egiten dabe Udalean "soberan dagozan elikagaiei urtekerea emoten jakie modu seguruan; herritarren eskura jartzen dira eta edonork hartu leike: egoera zaurgarrian dagozan

personak, zein lanera tuperra eroatea ahaztu dauanak. Ikasleen konzienziarazioa be bultzatzen da euren hartzean dabelako parte, zenbait pausutan, hozkailua kargetan, esate baterako" azaldu deusie BEGITURI Lemoako Udaletik.

### Datu batzuk

2023ko maiatzaren 11tik 18ra bitarteko datuak emon ebazan jakitera Udalak hozkailua martxan ipini eta gitxira. Aste horretan 102 errazino hartu ziran hozkailutik; hau da, batez beste 21 errazino egunean.

Karbono aztarnari jagokonez, 105,38 kg CO<sup>2</sup> botatea saihestu zan aste baten, ura eta lurraren okupazioa be aurreztuz.



IGORRE

## Igorreztarrek 2025eko udal aurrekontuei ekarpenak egin leikiez hilaren amaierara arte

### Erredakzioa

Udalak, aurrekontu parte-hartzailen gaineko liburuxkea banandu dau postontzietan hile honetan eta herritarrek, iradokizunak, zalantzak ala zuzenketak aurkeztu ahal izango dabez urri bigarrenaren 25era arte. Jasotako ekarpenak 2025eko aurrekontuetarako aurreikusiko dira.

Igorreko Udalak hurrengo aurrekontuetan landu beharreko puntu nagusien laburpena egin dau, aurreko urteetako auzo batzarretan jasotako iradokizun eta eskaeren bidez, herritarrakazko eguneroko komunikazioaren bidez, eta Bizi2030 proiektuaren bidez. Txosten honetan, lehentasuneko gaiak idenfikau dira, azpiegiturak,

aisia eta ekipamentua eta kultura arloetan. Herritarrek iradokizunak, zuzenketak edo zalantzak aurkeztu ahal izango dabez urri bigarrenaren 31ra arte [udala@igorre.net](mailto:udala@igorre.net) helbidean edo udaletxean bertan, astelehenetik barikura 09:00etatik 14:00etara.



UBIDE/ZEANURI

## Ubidek eta Zeanurik larreen inguruko bakea barriztauko dabe

Udalbatzen batzarra eta Larreen Mankomunitatearen XII. Zeharkaldia urri bigarrenaren 26an egingo dira.

### Jon Urutxurtu

Urri bigarrenaren 26an, zapatuan, oin dala 120 urte baino gehiagotik urtero errepikatzen dabenez, Zeanuriko eta Ubideko udalek larreen mankomunitateko kontuen kitapena egingo dabe eta bakea barriztauko dabe. Batzar hau aprobeztuaz, Zeanuri-Ubide. Larreen Mankomunitatearen XII. Zeharkaldia egiteko aukerea be eskainiko da.

Gainera, zeharkaldi hau Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako Ondarearen Europako Jardunaldien —Bideak, sareak eta loturak izenburua daroe aurten— egitarauaren barruan sartu da ibilbideak Erdi Aroan Bilbo eta Gasteiz lotzean ebazan Errege Bidea jarraitzen daualako, eta bidarri horretatik igarotzen ziran Bizkaiko itsasportuetara eta Gaztelako barrualdera joiazan personak eta

merkantziak.

Oin dala gizaldi bat baino gehiagotik Zeanuriko eta Ubideko udalak alkartu egiten dira, urte baten udaletxe baten eta hurrengoan bestean. Hasieran bide erdian, Barazarko mendatean, biltzean ziran. Han, udalerrri bakoitzean izena emondako abelburuen zenbakiak aurkeztu eta kontuak egiten ditue. Urtero errepikatzen dan ohitura eta betebeharra da. Dirudianez, batzar horren zergaitia, bazka-larreen aprobeztamenduen inguruan udalerrri biek gizaletan, gitxienez XVI. gizaletatik, izan dabezana ailegoei amaierara emoteko adostutako akordioa da.

### 12 kilometroko ibilaldia

Larreen mankomunitatearen batzarra aprobeztuaz, Ubide eta Zeanuriko udalek eta Amexier, eta Joko Alai alkarteek Zeanuritik Ubidera doan zeharkaldia antolatzen

dabe, Gasteiz eta Bilbo lotzean ebazan Erdi Aroko galtzadea edo Errege Bidea jarraituz. Oinezko martxa honegaz hiru helburu nagusi finkatu dabez antolatzaileek: alde batetik, Zeanuriko eta Ubideko udalek larreen mankomunitatearen inguruan urtero egiten daben batzar historikoa jakitera emotea eta balioestea; bestetik, ubideztarrei zein zeanuriztarrei zein bisitariei udalerrri bietako ingurumariak, eta batez be Erdi Aroko galtzadea, ezetutera emotea; eta azkenik, Ubide eta Zeanuriko herritarren arteko harremanak sendotzea.

Urtekerea Zeanuriko plazan, udaletxearen aurrean, izango da goizeko 10:00etan. Plazatik abiatuz, Undurragako urtegiaren ertzetik jarraituko dabe Ipiñaburantz zuzentzeko; hemendik Saldropora igo beharko dabe. Jadanik Saldropoko zelaikadan, Lapursasitik Otzarretako pagadi ospetsuaren ondok igaro eta Ubiderantz joko dabe; azken txanpa honetan galtzadearen aztarnak argi eta garbi azaltzen diran tarte batetik ibiltzeko aukerea izango dabe parte hartzaileek, azkenik Ubideko plazara heltzeko. 1924an Ubide eta Zeanuriko udalek sinatu eben aktearen faksimila bananduko da zeharkaldian parte hartzean daben artean.

Zeharkaldia amaitutakoan, hamabiren bat kilometro eroango dabez oinetan ibiltariak, baina ziur ziteari erantzutea mereziko daua, Ubide eta Zeanuri lotzean ebazan galtzadea eta bere inguruan azaltzen dan ondare naturala eta historiko-etnografikoa ezetuteagaz batera, udagoienean natureak azaltzen dauan koloreen sinfoniaz gozatzeko aukerea izango dabe eta.

Ibilaldiaren ostean, 13:00etan, Ubideko eta Zeanuriko zinegotziak batzartu egingo dira Ubideko udaletxean, eta gura dauanak 10 bat minutu irauten dauan batzarrean egoteko aukerea izango dau; bilera horretan idazkariak udalerrri bakoitzean izena emon daben abelburuen zenbakiak aurkeztuko dabez, eta bilera-agiria sinatu ostean, danak batera bazkaltzera joango dira. Datorren urtean gauza bera egingo da, baina Zeanuriko udaletxean, eta bazkaria ordaintzea be zeanuriztarrei egokituko jakie.



Gorbeiaiko artzainak, tartean Ubide eta Zeanurikoak, Igiriñan.



Oindino mantendutena dira Gasteiz eta Bilbo lotzean zituan Errege Bidearen tarte bat.

## ZEBERIO

## Bizkaibusek zerbitzua hobetuteko zeberioztarren iradokizunak jasoten dabil Zeberioiko Udala

### Erredakzioa

Bizkaibusek Zeberion A3928 Artea-Zeberio-Ugao linea baino ez dauka. Zeberioztarren garraio publikoko preminak beteta ez dagozala susmaita, Zeberioiko Udalak galdetegi bat ipini dau eskuragarri *online* eta etxeetara banandu dau, herritarren erreakzioak jasoteko, hilaren 18a baino lehenago. Udalak, galdetegien emaitzak Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazo eta beharrezko alegazioak egingo deutzaz.

Atzenengo urte biotan garraio publikoaren erabilera asko hazi da, baita Bizkaibuseko inguruko lineetan be. Ha-ta guzti be, linea bakarra, eta ibilbide eta ordutegi murrizta daukaz Bizkaibusek zerbitzuak Zeberion. A3928 lineak, oin dala ez hainbeste urte Bilbo-Zeberio-Bilbo egiten eban, oin zati bat baino ez: Ugaoraino eta jai egunetan Arrigorriagaraino, hain zuzen be. Sarritasuna barriz, urria izan da beti eta ordutegi batzuetan ez dago zerbitzurik ezta Ugao edo Igorrera joateko be.

Garraio publikoa hain eskasa

izanda, Zeberion biziteko kotxea behar da, baina aukerea izan ezker, herritarrek garraio publikoa gehiago erabiliko leukien jakin gura izan dau Udalak. Holan, galdetegian, "uste dozu (Bizkaibusek zerbitzua) sarriago erabili zeinkiela hobera egin ezker?", "Bizkaibuseko egungo zerbitzuak herriaren gitxieneko beharrak beteten dituala uste dozu?" edo "estalita ez dagoan ordutegiren baten faltea sentiduten dozu?" moduko galderak egin deutsez Udalak herritarrei.



## ARRATIA

## Errotak Arratiako XI. Enpresa Foroa antolatu dau

### Erredakzioa

Urri bigarrenaren 30ean izango da Zulaibargo instalazioetan. Hamaikagarren edizino honetan, enpresen jasangarritasunaren garrantzia azpimarratuko da eta Bizkaiko Foru Aldundiko kide batek, Transición Verde dirulaguntzen nondik norakoan barri jakinarazoko dau. Parte hartu ahal izateko *online* emon behar da izena.

Gaiagazko interesak enpresak parte hartzea animauko dituala uste



dabe Errotan. "Aurreko urteetan, batez beste, 15 bat enpresek hartu izan dabe parte foroan. Arratian 200 enpresatik gora dagoz eta jasangarritasun gaia gero eta presentego dagoanez enpresen munduan, legeak horrantza daroa, espero dogu ikusmira sortzea eta aurtengo parte hartzea handiagoa izatea" azaldu deutso BEGITUri Kizkitza Aurrekoetxea Errotako koordinatzaileak.

### Enpresa Berdea

Urri bigarrenaren, Enpresa Berdea proiektuaren barruan hainbat tailer antolatuten dabiz enpresentzat. Proiektu hau, Bizkaiko beste agentziak batera dauka Errotak. Lau tailer dira: hilaren 4an, posizionalmentua landu eben, 18an, Karbono neutroa helmuga izeneko izango da; 25ean, autosufizientzia energetikoa eta zemendiaren 8an, zirkularitasuna negozio eredu barri moduan landuko da. Walter Pack, Morga, Pekos eta Batz enpresek emon dabe izena formakuntza hau jasoteko.

## ARTEA

## Baserritar feministen topaketak Basoa Defendatzaileen Etxean eta Nafarroako Lekarozen izango dira

### Erredakzioa

EHNE Bizkaiak, Etxalde eta Mundubatek antolatuta, Euskal Herriko baserritar feministek euren egoera aztertu eta proposamen politikoak garatuko ditue urri bigarrenaren 24 eta 25ean Basoan eta 26 eta 27an Lekarozen.

Topaketan euren erakundeentzat garrantzitsuak diran alderdiak eztabaidatu eta partekatuko dira, andra baserritarak diran aldetik. "Zelan antolatu gara eta zelan heldu gara elikadura burujaubetza- ren eta baserritar feminismoaren aldeko planteamentu kolektibo batera? Eta zelan helduko deutsegu ikusezin bihurtutako errokei, esate baterako, indarkeria eta desbardintasan mota desbardinei?" moduko galderari erantzuten saiatuko dira baserritar feministak.

### Basoan

Urri bigarrenaren 24an, hasiko dira topaketak 10:00etan Basoa Defendatzaileen Etxean, andra baserritarren mahai-inguru bate- gaz, euren proposamen politikoak garatzeko. Ostean, 12:00etan, tailer bat egingo dabe *Barrura begira, ikusgarriak ez diren erroken*

*aurrean ahotsa altxatuz* izeneko- koa. Arrastian, baserri tresna, hazi eta abarren azokea egongo da.

Hurrengo egunean, andra baserritarren esperientziak bisitetan joango dira eta bazkalostean Nafarroara joango dira, bertan jarraitutako baserritar feministen topaketakaz.



## ARRATIA

## Arratia BHI Institutuko ikasle sortzaileek Saran ospatu dan Ikusi Mikusi azoka bisitatu dabe

### Iradi Barrenetxea eta Luberri Iurtia

Urri bigarrenaren 11tik 12ra, Ipar Euskal Herrian zehar ibili dira Arratia BHIko ikasleetako batzuk, barbarako Urruzunon sarituak izan diranak, bertsolaritza arloan ibiltzen diranak eta Batxilergoko II. mailako literaturako ikasleak.

Sarako azoka izan eben lehen geltokia. Bertan ikasle baxotxari liburu bat erosteko opari bonua emon eutsien eta horrez gain, Castillo Suarez idazlea ezetuteko aukerea izan eben. Arrasti aldera, Azkaine herria ezetutera hurbil-



du ziran, eta bertako hotela izan eben ostatu. Hurrengo goizean, Uztaritzeko Mutxiko Egunera hu-

rteratu ziran. Bertan euskal jantzak eginaz agurtu eben Lapurdira egindako bidaia.

## Harriketarrak Gazte Asanbladeak 25 urte bete ditu sasoi betean

Belaunaldi aldaketea gatxa izaten da beti talde guztientzat. Gizartea, bizimodua, harremanak, aisialdia, jaia eta burrukea modu desbardinetan egiten dabez oin dala 25 urteko gazteek eta oingoek. Lemoako Harriketarrak Gazte Asanbladeak baina, asmatu dau horretan eta oingo asanbladakideek lekukoa indartsu eta gogotsu hartu dabe Karabie Gaztetxean.

### Erredakzioa

Hogetabost urte honeek urri bigarrenaren 25-27rako astegoienean ospatuko dabez Harriketarrek, Gazte Asanbladearen historia jasoten dauan dokumental batez, musikeagaz, jolasakaz eta janagaz, besteak beste. Aurretik be, hainbat ekintza antolatu dabez.

### XV. urteurreneko jaia

Urri bigarrenaren 25ean, 18:30ean, jai hasikerako txupina bota eta pregoi laburtu baten 25 urte honeetan egindakoa laburtuko dabe. Ostein, 19:00etan, karro-poteoa egongo da. "Lemoako tabernetatik bozgorailua eroango dogu eta musikea ipiniko dogu. Eta hori izango da 20:30ak arte, gitxi gorabehera. Ordu horretan, jentea karparantza ekarriko dogu eta ekitaldia egingo dogu: dokumentala proiektatu" azaldu deusie BEGITURI Elene Gerrikabeitia eta Ainhoa Elorza asanbladakideek. Dokumentalean, kide ohiak eta gaur egunekoak agertzen dira eta euren esperientzia zelangoa izan dan asanbladan, herrian eta abar, kontetan dabe. "Lehenko asanbladakideek kontetan dabe zelangoa zan egoerea Lemoan

sasoi haretan. Lemoako kuadrilla bakotxa bere erara egoten euren artean. Hori dala-ta, gazte batzuk batu ziran eta pentsau eben Gaztetxe bat sortutea. Hortik sortu zan hau dana. Gaur egungo asanbladakideok be agertzen gara eta hor ikusten da egon dan aldaketea; oin dala 25 urte eta oingo egoerearen arteko desbardintasuna".

Ekitaldiaren ostein, 21:30ean, afaria egongo da eta afalostean bertso-saioa. Maider Azkunak, Arkaitz Estiballesek, Maite Sarasolak eta Jon Maiak botako dabez bertsoak eta Illart Gumuziok gaiemoile lanak egingo ditu. Ondoren, 23:30ean, Pablo Runtogether DJ-ak, asanbladakide ohia berau, girotuko dau gaua.

Hurrengo egunean, bertako ekoizleen merkadua egongo da goizean. Hogeitabat salmahai egongo dira, bertako produktu eta artisautza eskaintzen. Bitartean, umeentzako jolasak Zazparrak-en eskutik, eta marianito pintxadea be egongo da.

Arrastian, "15:30ean Jake Mateko finala daukagu. Jake Mate ez da xake txapelketa bat, Lemoako kuadrillen arteko olinpia-

da bat baino: Twister erraldoia, zelai erre, Mihiluze eta antzeko jokoak osotuten dabe Jake Mate, kuadrillen arteko harremanak sendotzeko antolatu genduan".

18:00etan, Xaukena Elektrotxarangea egongo da ordu bi eta erdi inguru kaleak animetan eta 21:00etan, kontzertuak hasiko dira karpan. Alarma morea, Esai-zu, Añube, Katu eta DJ Kuku eta Kene dira musika jo edo ipiniko

daben talde eta DJak. Alarma morearen rumba feministatik hasita Katuren autotuneraino Esai-zu lemoaztarren eta Añuberen rock-etik pasauta, estilo ugari eskaini gura dabez antolatzaileek.

Hurrengo goizeko 08:00retan Zumba saio batez emongo deusie amaiera 25. urteurreneko jaiari.

### Aurreko egunetako ekintzak

Hile amaieran izango dan jairako motorrak berotzen joango dira Harriketarrak hile osoan zehar. Holan, hilaren 5ean, Zumeltzara urteroko bizikleta igoera egin eben eta 11n, doinu afrikarrakaz jantzan egin eben Follow The Party kolektiboaren gidaritzapean.

Hamabostaldi honetan, euren arteko, zein Euskal Herriko beste asanblada batzuk hartu-emonak sendotutako jarduerak egingo ditue. Izan be, urri bigarrenaren 18an, asanbladakideen arteko afarian, 25 urte honeetan asanbladakide izandakoak batuko dira, eta hurrengo egunean,

Leitzara joango dira Gaztetxe eta Gazte Asanbladen topaketetara. "Topaketetan parte hartuko dogu Euskal Herriko beste asanblada eta gaztetxeak hartu-emonak egiteko: gure egoera komentau, eurenaren barri jakin...".

### Asanblada indartsua

Asanbladea sortzea berrogei gazte ingururen ekimena izan zala dinoe oingo harriketarrek, "herriko gazteria guztia" euren esanetan, baina urteak aurrera joan ahala gitxitzen joan ziran eta "pandemiaren aurretik lau persona edo" egozan. Oin 20 bat dira.

Berbizte honen errazoiak argi egon ez arren, herriko gazteen arteko hartu-emoni egotzen deusez. "Hartu-emonak badaukazuz asanbladan dagoan nonogaz eta joaten bazara asanblada batera eta gustetan bajatzu, kuadrillen komentetan badozu eta kuadrillea animetan bada... azkenean jente asko batzean da. Eta hori da pasau dana gaur egungo belaunaldiagaz" dinoe.



## Arantzazu, Areatza eta Lemoako Udalek 2025eko egutegia egiteko argazki lehiaketak eratu dabez

### Erredakzioa

Areatza eta Lemoako gaia, herria bera da eta lehiaketa honeetatik 12 argazki aukeratu ditue udalek egutegiak egiteko. Lemoak eta Areatzak martxan ditue lehiaketok eta hilaren 31ra arte bialdu daitezke lanak, [kultura@lemoa.eus](mailto:kultura@lemoa.eus) helbidera Lemoako Argazki Lehiaketan parte hartzeako, eta <https://labur.eus/1Es0Y> loturara igon behar dira argazkiak Areatzakotan parte hartzeako. Argazkiak

igoteko arazoak euki ezkeru udal-terera jo daiteke. Danak formatu horizontalekoak izan behar dira.

Lemoako lehiaketan, edonork parte hartu leike. Partaide bakotzak argazki bakarra aurkeztu ahal dau, eta argazkia, gitxienez 3 megakoa izango da. Saritutako argazkiak egutegian argitaratuko dira, eta opari bana jasoko dabe egileek. Sari banaketea abenduan izango da.

Egilearen izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta argazkia

ateratuko lekua eta data jakinarazoz behar dira argazkia bialtzeaz batera.

Areatzako lehiaketan parte hartzeako be, ez da bertan bizi behar, edonork hartu leike parte. Egutegirako aukeratutako argazkien egileek be oparitzo bana jasoko dabe. Sari banaketea Euskeraren Eguneko egitarauaren barruan egingo da. Areatzako Udalak aitatu gura dau saritutako argazkiak Udalaren jaubetzakoak izango dirala.

### Arantzazuko etxeak

Egutegia egiteko Arantzazuko Argazki Lehiaketaren gaia, Arantzazuko etxeak dira. Argazkiak, zemendiaren 1era arte bialdu daitezke [\[zkaia.org\]\(http://zkaia.org\) helbidera, hiru gehienez horizontalak eta formatu digitalean.](mailto:idadkaritza.arantzazu@bi-</a></p></div><div data-bbox=)

Zemendiaren 11tik 22ra argazkiak egongo dira ikusgai liburategian, jentek botoa emon dagian. Lehenengo hirurek saria izango dabe.



## PALESTINA

# Atef Abu Saif: "inork ez dauka Israel geldituteko ausardiarik"

Urri bigarrenaren 6an, Artean egon zan Atef Abu Saif Palestinako Aginte Nazionaleko Kultura ministro ohia eta idazlea, *Gazako egunerokoa* liburua aurkezten eta hango egunerokotasunaren barri emoten. Liburua, Berriak, Elkarrek eta Jakinek alkarlanean argitaratu dabe. Amagoia Mujika Berria egunkariko zuzendaria be egon zan, liburua zelán sortu zan azaldu eta egileari galderak egiten.

Mujikak eta bertaratutakoek egindako galderak eta Atef Abu Saifen erantzunak dakarguz hona.



Atef Abu Saif Arteako plazan.

## Erredakzioa

Arteako plazan egin jakon harrerea, txalo artean, Abu Saiferi. Herriko Bentan izan zan solasaldia. Malu Egiluzek egin eban aurkezpena eta ostean Amagoia Mujikak azaldu eban *Gazako egunerokoa* liburuaren sorrera. "Genozidioa hasi eta handik egun batera ipini zan gugaz hartu-emonetan Abu Saif esanez sekulako materiala eukala, bertatik bertara idatzitakoa, eta atera beharra egoala jentek jakiteko. Irakurri neban eta martxan ipini genduan makinaria guztia. Berriako zuzendaritzeagaz egin neban berba itzuli behar zalako euskerara eta sekulako prestutasuna agertu eban ikusten zalako ezinbestekoa zala argitaratzea" azaldu eban Mujikak.

"Esaldi guztiak dira garran-

tzitsuak eta esaldi guztiak dira sekulakoak. Oso lan personala da, berak erretratetan dau Gaza izen-abizenakaz, zenbakien atzean personak dagozalako eta persona horreekaz mosaiko bat osotuten dau" gehitu eban. Liburuagaz jasotako dirua, Gazako gobernuaz kanpoko erakundeentzat da.

Ostean, palestinarrak hartu eban berbea eta harrerea eskertu ostean, egoera aurkeztu eta jentearen itaunak erantzuteari ekin eutsan.

"Urtebete pasau da, eta, hata guzti be, egun baxotxa lehen eguna langoa da. Atzo gauean be tankeak egon ziran Jabalian (bere familia bizi dan errefujiadu esparrua). Egia da gerratik urten nazala, baina egia esan ez naz inoz urten, egunero eta minutue-rogoten nazalako adi. Eta gerra hasi eta urtebetera honetaz

berba egiten jarduteak erakusten deusku zein bidebakoa dan. Gerra hasi zanean, inok ez eban uste hainbeste iraungo ebanik.

Nik gerran bizi izan dot bizi osoa, gerra bat bestearen atzetik. Gerran jaio eta gerran hilten diran palestinarrak gehienak legez. Aita kanpaleku bateko denda baten jaio zan, bere ama Gazatik urte-tera behartu ebenean. Hori da gehiengoaren errealitatea Palestinan". Gazan bizitea, norbera albiste izatea langoa dala esan eban.

## Israelen inpunitatea

Urri bigarrenaren 7an bete zan urtea Israelek Gazaren kontrako oldarraldi hau hasi ebanetik.

"Ez da gerra barri bat. Egia da gaur egun sare sozialakaz danok ikusi leikegula gerra hori, baina 1948ko Nakbaz geroztik dirauan gerrea da. Orduan 37 sarraski ikaragarri izan ziran.

Ez dago ezelango bermerik gerra hau bihar edo hemendik hilebete batzuetara geldituko danik, Israel legearen gainetik dago-ta. Inoz ez da gertatu Nazino Batuetako estatu kide batek persona *non grata* izentatzea Nazino Batuetako burua. Eta Israelek egin dau. Guterres persona *non grata* izentau dauana beste estaturen bat izan balitz..."

Nazinoarteko jokabidea salatu eban Palestinako Aginte Nazionaleko ministro ohiak. "Israel da Nazino Batuen ebartziz kide izan dan estatu bakarra, estatu guztiak mahai baten inguruan bildu eta Israel sortzea ebatzi ebenean. Eta Israel da NBko gomendioetako bat be bete ez dauan Nazino Batuen estatu bakarra".

Palestinako lurretan sortu eban Israel. "Baina kontua ez da lurra norena dan, kontua da inok ez daukala ausardiarik Israel geldituzeko eta nahikoa dala esateko eta gure lurraldean egoten ixteko.

Netanyahuk, Israelgo lehen ministroak, mundu guztia su-etena eskatzen egoala ikusi ebenean, beste gerra bat hasi dau (Libanon). Zoritxarrez, ez dago bermerik gerra hau hilebete edo bi barru amaituko danik. Sentiduten dot hau esatea, baina agian urtebete barru hemen izango gara gerrearen bigarren urteurrenean.

## Eskuan izena idatzita

Bertaratutakoek galderak erantzun ebazan gero Abu Saifek. Publikoko batek, alkarriketa baten entzun ebala errefujiadu kanpalekutan ez dagoanean be, Abu Saifek lurrean egiten dauala lo eta zergaitia jakin gura izan eban.

**A.A.S.:** Ezin dozu iragana ahaztu, eta Gazatik kanpo be, kezkatuta eta gertatzen dagoanari begira jarraitzen dot. Eta, zeozelan, seguruago sentiduten naz, nire bizkarreko minez harago.

Egun honeetan, bat-batean esnatzen naz, eta jakin behar dot gainean daukadana sabaia dan, ala kanpalekuko denda. Izan be, ikaragarria da lekuri seguruena bilatzearen idea...

Gerrako lehen 40 egunak Jabalian pasau nebazan, gerrako egunik txarrenak izan ziranak. Eta nigaz egoan 15 urteko semeagaz egiten neban lo lagunen etxeetan. Leku seguruena bilatzen neban, horma seguruena, jausteko aukera gitxien eukana. Eskuan izena idazten genduan, etxea jausi ezker, topatzen ginduezanek nortzuk ginan jakiteko behintzat.

Oin, oindino be, erropeagaz oheratzen naz.

## Bizirik iraun

Berriako zuzendariak, zelangoa zan egunerokotasuna Gazan itaundu eutsan, zelán eskuratzen daben jatekoa, ura...

**A.A.S.:** Gerra guztiak bizi izan dodaz, Lehenengo Intifada (1987-1993), 2014koa... baina gerra

**"Gerra guztiak bizi izan dodaz, Lehenengo Intifada (1987-1993), 2014koa... baina gerra hau bai izan dala hasikeratik desbardina eta oso gogorra"**



hau bai izan dala hasikeratik desbardina eta oso gogorra. Gauzarik normalena hiltea dala esango neuke, ez bizitea. Bizirik irauten badozu, droneak harrapatu ez zaitualako da, kasualidade bat.

Gogoan daukat egun baten autoa martxan ipinten nengoala eta lagun bat ikusi nebala aurrean. Deitu egin neutsan; esan neutsan gauza bat esan behar neutsala, eta berak esan eustan etxoteko minutu batez, komunera joiala. Hurrengo segundoan, etxea jausi eta laguna hil egin zan. Momentu haretan pentsau neban etorri izan balitz edo ni harengana joan, bizirik egongo zala. Kasualidadea izan zan.

Egunero, goizero, geunkan idea bakarra iluntzera bizirik ailegetea zan, eta gauetan, bizirik irautea goizera arte. Eta, egia esan, hori ez da bizitea, proiektu barik, minutuz minutu zer gertatzen dan ikusten, zain...

Gerran jagon egin behar dozu zenbat ur hartzean dozun, daukazuna, eguna pasetako dalako eta ez dalako gehiago egongo. Ni 40 egunez egon nintzan dutxau barik, urik ez egoalako. Eta lagun asko ez ziran dutxau 3 hilabetez.

Ume txikerrenek ez dakie telebista zer dan, ez dagoalako elektrizidaderik. Hozkailu bat zer dan be ez. Leku batzuetan jentea ilaran egoten da, mobikorra apur bat kargetako. Batzuetan, kargetan da argi-puntu bat izateko.

Egunean otordu bakarra dago. Nire arreba batek, oin dala hilebete bat, oilasko izoztu bat topau eta erostea lortu eban. Bederatzi hilabete eta erdi ziran oilaskoa jan barik. Ez dago gasik, eta hondartzara joan behar da egurra moztera, sua egiteko eta sukaldatu ahal izateko. Jenteak Jabalian, nire familiak barne, ogia egin behar izan dabe animalien janariagaz, pentsuagaz. Urtailetik maiatzaren amaierara arte ez dabe urunik euki. Ez eukien zer jan. Zugatzen hostoak jaso eta egosi egiten ebezan, pentsuagaz egindako ogiagaz jateko. Oin dala urtebetetik, jenteak ez daki zer dan okela freskoa; topatzen dabenean, latakoa da. Oin izoztutako zeozer be badago.

Nire ikasle bat, Gazako idazle gaztea, hil zana, hil aurretik Facebooken zera idatzi eban: ez ohitu gertatzen dagoan honetara! Baina zoritxarrez ohitzen gabiz.

**Gerra amaitzen danean, beste gerra bat?**

**A.A.S.:** Gerra hau amaitzen danean, beste gerra bat egongo da: normaltasun batera zelana itzuli. Izan be, ez dago ezer. Ezingo da ezer berreregi, jada ez dagoalako ezer, ez da ezer geratzen. Eta hori da Israelen helburua: erabat suntsitzea, eta horregaitik jarraitzen dabe esaten Jabaliako jenteari alde egiteko, ezer ez geratzea gura dabelako, dana suntsitu gura dabelako. Baina Israeliek uste badau palestinar guztiak hilez, etxe guztiak suntsituz, palestinarrek gelditu arazoko dituala, ez dirala barriro altxauko uste badau, oker dago. Nakbagaz palestinarrek desagertuko zirala uste eban, baina ez zan orduan gertatu, eta ez da oin gertatuko. Gerra hau, gerra guztiak bezala, nonoz amaituko da, zelana ez, baina azken gerrea izango da?

Zelana konpondu daiteke gatazka hori? Gerreari jarraituz edo bakeari begira. Eta zelana lortu leiteke bakea? Ezin da segurtasunik lortu, bizilaguna seguru ez badago. Ezin dozu jan bizilagunak jatekorik ez badauka, eta ezin dozu beroa aprobetxau zure bizilaguna

hotzez hiltzen badago. Bakea ezin da lortu palestinarrek eskubide legal eta politiko osoak ez baditue. Erraza da, baina mundua itsu dago. Eta ez da Israel bakarrik, zeharka bada be, nazinoarteko komunitadeak, NBEk, Europar Batasunak, beste edozein estaduk be erantzukizuna daukie Israeleri beste estaduei onartzen ez jakiena onartuteagaitik.

Nik Europako Historia politikoa ikasi neban, eta neure buruari galdetzen deusat ea zergaitik ordaindu behar dituen palesti-

narrek Europaren akatsak. Gure familiak hiru etxe daukaz Gazan, eta kanpaleku baten bizi gara. Ez dauka zentzurik.

**Herritarren mobilizazioak**

Herritarren mobilizazioek ea zeozertarako balio daben eta ea ailegetan jakien palestinarrei jentearen solidaridadea be galdetu eutsien publikotik. Baietz eta itxaropenari eusteko eta burrukan jarraituteko ezinbestekoa dirala solidaridadea eta mobilizazioak erantzun eban. Eta jarraitutera animau.



## MARATOI TXIKIA



## Hilaren 27an izango da Arratiako Maratoi Txikiaren 43. edizioa

### Erredakzioa

Edadeari egokitutako distantziakaz, lasterketarik luzeenak 11 kilometro ditu, Zeanuritik Igorrera. Arratiako guraso alkarteek antolatuten dabe edade guztietan kirola bultzatzea bilatzen dauan proba hau.

Nagusiak Zeanuritik urtego dira 10:15ean, Zeanuri eta Igorre arteko 11 kilometroak egiteko. Lasterketa hau, lasterketa herriko askoren neurrikoa da eta bertan, gurasoek eta zaletuek hartzean dabe parte. Igorretik Zeanurira joateko autobusa ipiniko dau antolakuntzeak.

2007tik 2011ra jaiotakoek, Arteatik Igorrera, 7 km-ko ibilbidea egingo dabe, Arteatik 10:30ean

urtenda. Igorretik Arteara joateko be ipiniko dau autobusa antolakuntzeak.

Txikerrenek Igorren egingo dabe galapan. Lasterketak 11:30ean hasiko dira. 2012tik 2014ra jaiotakoek 1.300 metroko ibilbidea izango dabe; 2015etik 2017ra jaiotakoek 800 metrokoa eta 2018tik aurrera jaiotakoek 300 metrokoa.

### Izen-emotea

Izena emoteko modu bi dagoz *online* edo egunean bertan Igorreko eskoletan 08:45etik 09:15era arte. *Online* barriz, bezperako, hilak 26, 12:00ak arte emon daiteke izena *kronoak.com* webgunean.

## MENDI MARTXEA

## Zizetan, Dimako mendi martxea hilaren 19an izango da

### Erredakzioa

Ibilbide bi egongo dira aukeran, 21 kilometrokoa eta familia ibilbidea, 9 kilometro ingurukoa.

Dimak urri bigarrenaren 19rako antolatu dau aurtan Zizetan mendi ibilaldia.

Partaideak, goizeko 08:00retan abiatuko dira frontoi txikitik, ibilbidearen 21 kilometroak egiteko. Hain ibilbide luzea egin gura ez dabenentzat beste aukera bat dago, familia ibilbidea izentau dabena, 9 kilometro ingurukoa. Honek 10:00etan urtego dira frontoitik. Helmuga kontrola 14:30ean zarratuko da.

Izena, *online* emoteko auke-rea egon da hilaren 15era arte,

baina egunean bertan be emon daiteke izena, martxea hasi baino ordu erdi lehenago frontoi txikian bertan, 10 euroko prezioan.



## ERRUGBIA

## Zekorrek irabazten hasi dabe ligea

### Erredakzioa

Ekin Eraikuntzak Arratiko Zekorrak taldeak hilaren 12an jokatu eban Euskal Liga Senior 2. mailako 2024-2025 denporaldiko lehen partidua. Uribealdea B taldea hartu eban zekorrek San Txismen eta ezin hobeto amaitu zan aurrez aurrekoa, 52-12. "Polito, lehenengo partidua izateko sensazino onak izan doguz", balorau eban Ekaitz Duñabeitia

entrenatzaileak.

Lehenengo zatian arratiarrek zigor kolpe ugari egin ebezan baina bigarren zatirako taldea buruz sartu zan partiduan. "Gure jokoa egin genduan eta holan, hobeto urten ziran gauzak bigarren zatian", kontau dau Duñabeitia. Irabazitako lehen puntuen gorakadeagaz, datorren jardunaldian, hilaren 26an Iruñara joango dira zekorrak, La Unica taldearen kontra jokatzera.



San Txisme zelaian Arratiko Zekorrak.

## MENDIA

## Ubiden izango da Arratia-Otxandio-Zeberio-Ubide Mendizale Eguna

### Erredakzioa

Hilaren 27an izango da Arratia, Otxandio, Zeberio eta Ubideko Mendizale Eguna XXIII. edizioa. Aurtan, Ubideko Amexier mendi taldeari egokitu jako antolakuntzea eta ibilbide bi antolatu ditu; luzea 17 km-koa eta laburra 12 km-koa.

Partaideak 09:00etan urtego dira plazatik. Ibilbidea Bizkaia eta Araba artean dagoan ibilbide historiko baten parte da; Olarre (763 m) eta Siskino (854 m) mendietako tontoretara igon eta Ogetako magaletik pasetan dana. Ibilaldiaren ostean, 13:30ean, kopaua egongo da frontoian partaideentzat.

Urtero lez, Mendizale Egunak Arratia, Ubide, Zeberio eta Otxandio mendi taldeetan dagoan mendizaleak batuko ditu; Amexier, Joko Alai, Ganzabal, Mirugain, Austarri eta Lamino mendi taldeetakoak, hain zuzen be. Egunaren antolakuntzea txandaka egiten dabe, igaz Zeanuriko Joko Alai antolatu eban eta ehun mendizaleatik gora batzean dira egun horretan, alkarregaz, inguruko mendietatik ibilaldia egiteko.

## ZIKLO-KROSA

## Manu Quintanilla txapeldun Urduñan

### Erredakzioa

Urri bigarrenaren 12an, jokatu-tako Orduña City Cross ziklo-kros lasterketa irabazi eban Manu Quintanilla igorretarrak Master 50 kategorian. Denporaldiko lehen garaipena izan zan Quintanillarentzat.

"Urtekeran, enborren gune batera joian aldapa bat egoan, eta hasikera ona egitea sano garrantzitsua zan. Horretan saiatu eta zelaian bigarren postuan sartzea lortu neban, Marcos de Tena madrildarraren atzetik. Taldea luzatuta egoan, eta lehen igoeran postuari eutsi ahal izan neutsan.

Zelaiaren bigarren zatian, De Tena aurreratu eta lasterketa buruan jarri ahal izan nintzan, erritmoa markauz eta De Tena atzean itxiz. Holan lortu neban lasterketa irabaztea" azaldu deuto BEGURI Manu Quintanillak.

**ARRATIA-OTXANDIO-ZEBERIO-UBIDE XXIII. MENDIZALE EGUNA**

APUNTATZEKO AZKENENGO EGUNE URRIAK 23  
PREZIDA 5 EURO (UMEAK 14 URTERARTE DOHAINIK)  
Luntza 13:30 etan ubideko frontoian

12 KM 17 KM

IZENA EMATEA DERRIGORREZKOA

AREATZA.	646355550
ZEANURI.	634430543
OTXANDIO.	722571873
LEMOA.	675701359
UBIDE.	608936330
ZEBERIO.	656415597

**URRIAK 27 9:00**  
**UBIDEN Siskino 854 M**

GANZABAL MENDI TALDEA

## ONE WALL



# Valentziako One Wall Open Txapelketan domina ugari lortu ditue Arratiako pelotariek

Urri lehenengoaren atzen astegoienean jokatu zan One Wall Open modalidadeko pelota txapelketea Tavernes Blanques (Valentzia) herrian.

### Erredakzioa

Amerika eta Europako herrialde askotako ehun jokalaria baino gehiagok jokatu eben txapelketea, banaka zein binaka. Tartean izan ziran ROWK taldeko pelotariak: Aitor Asua (Dima), Jokin Burgete (Dima), Lur Ziarrusta (Dima), Mikel Beldarrain (Artea), Olatz Arrizabalaga (Arteaga) eta Miren Larrarte (Bidania).

Gizonezkoen Open mailan, Lur Ziarrusta eta Mikel Beldarrain lehiatu ziran. Banakakoan, taldekako partidu guztiak, final-laurdenak eta finalerdiak irabazita, arratiarren arteko finala ikusteko aukerea egon zan. Finalean Ziarrusta nagusitasunez gailendu zan.

Binakakoan be, partidu guztiak irabazi ostean finala jokatu eben arratiarrek. Partidu estu eta amaiera oso polemiko baten ostean, *Tie-Break*ean 11-10 galduta azpitxapeldun izan ziran.

B mailan, banakakoan, Jokin Burgetek hartu eban parte. Itzelezko maila emonda, taldeko partidu guztiak, final-laurdenak eta ezustekoa emonda, finalerdiak irabaztea lortu eban. Finalean bere maila mantendu eban, baina partidu estu baten ostean, ez eban garaipenik lortu. Binakakoan, Aitor Asua eta Jokin Burgete bikotea, finalerdietara heldu zan, hirugarren eginda.

Banakako C mailan, Aitor Asuak ligaxkako hiru partiduak eta final-zortzirenak arazo barik irabazi ostean, final-laurdenetako partidu estu baten txapelketatik kanpo gelditu zan *Tie-Break*ean galdu eta gero.

### Europako zirkuitua

Europako zirkuituan, Valentziakoaz gainera, zemendian Belgikan jokatu da beste txapelketa bat; Tolosan (Frantzia), abenduan; urtailean Herbehereetan; zezeilean Italian eta Londresen. Martian, Flandrian (Belgika) eta, zehaztu barik badago be, Euskal Herrian txapelketea egiteko asmoa dago. Maiatzean, Belfasten (Irlanda) jokatu da modalidade honetako beste torneo bat.

Zirkuituko txapelketa guztietako emaitzakaz, pelotarien ranking bat egiten da.

### Rebotean One Wall Kluba ROWK

Rebotean One Wall Kluba, ROWK bere inzialez, Lur Ziarrustak eta Mikel Beldarrainek sortu eben eta Euskal Herriko pelota modalidade honetako lehenengo kluba da. "One Wallari Euskal Herrian indarra emoteko eta txapelketak antolatuteko, besteak beste. Gehienak gara Arratiakoak edo Bizkaikoak".

## FUTBOLA

# Andrazkoen Arratia A eta gizonezkoen Arratia A eta B lehen postuetan dagoz

Atzen jardunaldian Arratia futbol taldeko nagusien taldeek garaipena lortu ostean lehen postuetan dira andrazkoen A eta gizonezkoen A eta B taldeak.

Andrazkoen B taldeak ligako lehen partidu bietan partidu bat galdu eta bestea irabazi dau eta taularen erdikaldean dago. Lemoako Harrobik osteraz ez dau lortu oindino garaipenik eta sailkapeneko atzenengo postuetan dago.

### Erredakzioa

Andrazkoen Arratia A taldeak hilaren 12an jokatu eban Osasuna C taldearen kontra Urbietan eta 1-0 irabazi eban Maddi Ayarza dimoztarak bigarren zatian sartutako golari esker. Aurreko partidu bana bardindu eben etetik kanpo Alaves B taldearen kontra. Sei jardunaldiren ostean 13 puntu ditu Arratiak eta hirugarren postuan dago. Datorren partidu Iruñako Oberena taldearen kontra jokatu dau etetik kanpo hilaren 20an, arrastiko 16:00etan.

Andrazkoen Arratia Bk hilaren 13an jokatu eban etetik kanpo Balmaseda taldearen kontra eta 2-6 irabazi eban. Jardunaldi biren ostean 3 puntu ditu Arratia Bk eta taularen edikaldean dago. Datorren partidu Urbietan jokatu dau Peña Ath. Santurtzi A taldearen kontra hilaren 20an, eguerdiko 13:30ean.

Gizonezkoen Arratia Ak hilaren 12an jokatu eban Sestao River B taldearen kontra Sestaon eta 0-4

irabazi eban. Aurreko partidu Abadiño A taldearen kontra husna bardindu eban etxean. Lau jardunaldiren ostean 10 puntu ditu Arratiak eta hirugarren postuan dago. Datorren partidu Lekeitio A taldearen kontra jokatu dau Urbietan hilaren 19an, arrastiko 17:30ean.

Gizonezkoen Arratia B taldeak be irabazi egin eban hilaren 12an San Miguel A taldearen kontra Urbietan jokatu dau partidu, 2-1. Aurreko partidu 1-3 irabazi eban Begoña A taldearen kontra. Lau jardunaldiren ostean 8 puntu ditu Arratia Bk eta bigarren postuan dago sailkapenean. Datorren partidu etetik kanpo

jokatu dau La Merced A taldearen kontra hilaren 19an, 19:45ean.

### Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobik partidurik irabazi barik segiduten dau eta hilaren 12an La Merced A taldearen kontra Arlonagusian jokatu dau partidu bina bardindu eban. Aurreko partidu bana bardindu eban etetik kanpo San Miguel taldearen kontra. Lau jardunaldiren ostean puntu bi ditu Lemoako taldeak eta jatsiera postuetan dago. Datorren partidu etetik kanpo jokatu dau Loiola Indautxu taldearen kontra hilaren 20an, 19:30ean.



Sestao River B eta Arratia Aren arteko partidu.

## BOLA TXAPELKETEAK

# Altzusta nagusi Zeanuriko Kofradien Arteko Bola Txapelketan

### Jon Urutxurtu

Altzusta irabazi eban 2024ko Zeanuriko Kofradien Arteko Bola Txapelketea. Altzusta bolalekuan jokatu zan taldekako txapelketa hau urri bigarrenaren 5ean, eta lehenengo tokia etxekoek, altzustarrek, eskuratu eben 18 txirilo botata. Bigarren Otzerinmendi eta hirugarren Asterria sailkatu ziran, 16 eta 15 txirilogaz hurrenez hurren.

Udalerria osotzen daben zazpi kofradietako ordezkariak hartu eben parte taldeka jokatzen dan txapelketan: Altzuak, Altzusta, Asterriak, Ibarguenak, Ipiñaburu-Undurragak, Otzerinmendik eta Uribek.

Taldea 4 bolarik osotuten dabe, bolari bakotzak 6 jaurtiketa egiten ditu, eta taldekide guztiek botatako txiriloen batuketea hartzean da kontuan.

Laukote irabazlea honako bolari honek osotu eben: Juan Carlos eta Mikel Izurza aita-semeak, Asier Ibarrondok eta Jon Bereikuak.

Txapelketako bolariak gazteena 13 urteko Jon Beitia izan zan eta

beteranoena 87 urteko Esteban Ozerinjauregi.

Aitamen berezia merezidu dabe parte hartu eben andrazko biek: Dorleta Goioagak, Altzuako kofradiagaz eta Magali Beitiak Otzerinmendikoagaz.



Altzusta taldea, 2024ko Kofradien Arteko Bola Txapelketean irabazlea. Argazkia: Jon Urutxurtu.

## ONDAREA

## Errege Bide eta tranbiaren inguruko ibilbide eta berbaldiak, eta Baltzola-Indusi ibilbidea, aurtengo ondarearen atzenengo jarduerak Arratian

Ondarearen Europako Jardunaldietako programan, Arratia eta Zeberion bederatzi jarduera antolatu dira aurtengo urrietan.

## Erredakzioa

Atzenengo hirurak, hamabostaldi honetan izango dira: urri bigarrenaren 18an, 60 urte Arratiako tranbia barik berbaldia egingo dau Jon Urutxurtuk Zeanurin, 20an Areatzan *Del Camino Real al Tranvia de Arratia* ibilbidea eta 27an, *Baltzola-Indusi, ibilbide magikoa* ibilbide gidatua egongo da.

2024ko zemendiaren 30ean, 60 urte beteko dira Arratiako

tranbia desagertu zanetik. *Arratiako tranbia (1902-1964)* liburuan oinarrituta, denporan zeharreko bidaia bat egingo dabe hilaren 18an, 19:00etan, Zeanuriko Kultur Etxera hurreratu-takoek Jon Urutxurturen eskutik. Historialariak, garraiobide harek ze garrantzia izan eban Arratian eta arratiarrentzat azalduko dau.

**Areatzan, bigarren aukerea**  
Areatzan, *Del Camino Real al Tran-*

*via de Arratia* ibilbide gidatua urri bigarrenaren 13an egin zan euskeraz, eta ibilbidea egiteko beste aukera bat egongo da hilaren 20an, oingoan gaztelaniaz. Hitzordua 12:00etan da Areatzako Gudarien Plazan eta alde aurretik izena emon behar da *areatzakoudala. areatza@bizkaia.org* helbidean edo 94 673 90 10 telefonoan, leku mugatuak dagoz eta.

Partaideak Areatzako alde historikoko kaleetatik eta bes-



Arratiako Tranbia Zeanurin.

Argazkia: Felipe Manterola.

te bide batzuetatik ibiliko dira Angel Larrea eta Jon Urutxurtu historialarien gidaritzapean.

Atzenengo hitzordua, Baltzola San Lontzo ermitan da hilaren 27an, 10:30ean. Baltzola eta Indusi ingurua, mitologian, Euskal Herriko gune esanguratsuenetakoa da. Arkeologian, Neandertalak ezetuteko, Axlorreko

indusketak ezinbestekoak dira. Historian, XVIII. eta XIX. mendean personaia garrantzitsuak sortu ziran hemen eta Zoologian, koba eta barrunbeetako espezieen ikerkuntzan erreferentziatzkoa da leku hau. Ibilbidearen hainbat puntutan, antzeppenak egingo dira zuzenean. Izena aurretik emon behar da udaletxean.

## BERBALDIA

## Pasang Temba sherpak berbaldia egingo dau Igorreko Kultur Etxean


## Erredakzioa

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, urri bigarrenaren 25ean, 19:30ean, Pasang Temba sherpa Igorreko Lasarte Aretan egongo da berbaldia emoten.

Pasang Temba euskal alpinismoaren Historian dago. Ezaguna egin zan, 1980an Everesteko tontorrean ikurriñari eusten agertu zalako argazki baten. Martin Zabaletagaz igon zan, Zabaleta izan zan Everesteko gailurra zapaldu eban lehenengo euskalduna.

Euskal espedizioaren hiru-

garren saiakeran lortu eban Zabaletak eta Pasang Temba sherpak tontorra zapaltzea. Pasang Tembak 30 urte eukazan. Jatsierea konplikaua izan zan eta gaua arrakala baten pasau behar izan eban. Jatsieran bitan jausi zan Pasang Temba. Hurrengo urtean, Pyreinaica aldizkariaren arabera, Euskal Herrira etorri ziran lehenengo aldiz, bera eta Pemba Shering Everest-80 euskal espedizinoen sherpen burua. Besteak beste, itsasoa eta zestapunta gustau jakiezala jaso eban orduan Pyreinaica aldizkariak.



## GAU BALTZA

## Kalabazak, mozorroak eta disfrazak gurean Arimen Gauean



## Erredakzioa

Globalizazioaren eraginagaz, Euskal Herriko umeek Halloween ospatuten hasi ziran oin dala urte batzuk. Baita gurean be. Baina Euskal Herrian, antxinako tradizioa zan, Arimen Gauean edo Gau Baltzan, kalabazak edo arbiak hustutea eta kandelak ipintea barruan. Eske errondea be egiten zan eta sorgin edo zonbi disfrazau beharrean, trapu zaharrak egindako mozo-

roak janztea zan tradizioa.

Herri askotan berbiztu gura dabe Euskal Herriko tradizioa, baina era berean indarra be hartzean doa Ameriketatik etorritakoa, hara Europatik erondakoa, izan be. Dana dala, modu batean zein bestean, globalizazioak ekarritako disfrazak edo euskal tradizinozko mozorroak, gozoki edo txanpon eske, etxez etxe eskean ibiliko dira ume kuadrillak urri bigarrenaren 31ko iluntzean.

## Bediako Arimen Gaua

Ludoteka eta gazteleketan, gai honen inguruko jarduerak egingo ditue. Bedian, esaterako, Gau Baltza, frontoian, liburutegian, eta gero kalez kale ospatuko dabe. Frontoian tailerrak egongo dira 17:15etik 18:15era. Ostean, 18:30etik 19:30era, Elsie Xalbador ipuin kontalariak, *Beldurren kalabazak* kontaketea egingo dau liburutegian, eta 19:30ean, Xanduli, manduli emon goxokiak guri! esanda, gozoki eske urtengo dira umeak.

## KOTXEPIN

### Ikuskizun bi Kotxepinen

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 19an, Alara konpainiak *Magia azterketa* ikuskizuna eskainiko dau eta 23an, Itziar Saenz de Ojerek, *Kontuak, kantuak eta xelebrekeriren bat* ipuin kontaketa saioa egingo dau. Umeentzako ikuskizun bi honeek Kotxepin Kultur Etxean izango dira 18:30ean.

*Magia azterketa* ikuskizunean, umeak magoagaz identifiketan dira "azterketa" gaintzeko hainbat proba egin behar dituelako. "Gatxa ete da azterketa? Publikoak lagunduko deutso magoari?" galdetuten dabe konpainiakoek sinopsian.

Clown mundutik dator Itziar Saenz de Ojer eta 20 urte luzeko ibilbidea dauka ipuin kontalari moduan. Bere ikuskizun askotan, Lemoara dakarren honetan legez, ipuinak eta kantuak buztartzen ditu. 5 eta 8 urte bitarteko umeentzat gomendatzen da *Kontuak, kantuak eta xelebrekeriren bat* ikuskizuna.

## IRAKURLEEN TXOKOA

### Xabier Montoiaren *Lautadako mamua* Arteako Irakurleen Txokoan



Erredakzioa

Urri bigarrenaren 18an, 19:00etan, Arteako Irakurleen Txokokoak batuko dira Kultur Etxean, *Lautadako mamua* (Elkar, 2024) eleberriaren gainean berba egiteko.

Xabier Montoiaren nobela honek, gizarte tradizional baten andren kontrako krimen bildurgarriak kontetan ditu. "XIX. mendea sartuxea da; mo-

dernidadearen zantzu batzuk han-hemen barruntau arren, lur lanari eta betiko ohiturei loturik bizi da jenterik gehiena. Baina gizarte tradizional hori goitik behera astinduko dau, hilketa sorta batek. Hildakoak prostitutak izan diran bitartean arduraren handirik ez agintariei zein legea zintzo beteten daben kristau prestuei; halako baten, baina, andra ondraduak akabatzen hasi dira, etxeoandre kabalak nahiz neskatila gazteak".

Xabier Montoia Revuelta (Gasteiz, 1955) ibilbide luzeko idazlea da. Poesia liburuak, narrazioak, eleberriak eta kantuak, besteak beste, sortu eta argitaratu ditu. Poesia liburu bat *Anfetamiña* (Susa, 1983) izan zan argitara emon eban lehenengoa eta aurten argitaratutako eleberria, *Lautadako mamua*, azkena. Musikari moduan be sano ezaguna da Montoia; M-ak taldean zein bakarka egindako ibilbideagaitik.

## POESIA

### Poesia errezitaldia Errekagane tabernan

Erredakzioa

Poesia Hegalaria taldeko eta konbidatutako rapsodek errezitaldia eskainiko dabe urri bigarrenaren 25ean, 19:30ean, Errekagane tabernan. Mikrofonoa zabalik egongo da euren peomak edo beste batzuenak irakurri, parte hartu gura daben guztientzat.

Errezitaldi musikatu izango da. Poemak errezitatzen, Pablo Cabañas, Irune Elexpe, Ana Juez, Raquel Bartolome eta Javier Arnaiz egongo dira. "Bilbotik datozenak, rapsoda onenatarikoak dira" azaldu deutso BEGURI Irune Elexpe Poesia Hegalariako kideak.

Iker Allurek, Alberto Egiak eta Jose Ignacio Maestrek ipiniko deustie musikea errezitaldiari.

Zemendiaren 15ean, Poesia Hegalariak euskeraz egingo dau Blas de Oteroren poesiaren errezitaldia Lasarte Aretan.

## KONTZERTUA

### Bilboko Rossini Abesbatzak kontzertua eskainiko dau Zeanuriko eleizan

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 19an, 19:00etan, izango da Andra Mari eleizan. Luis Perezen zuzendaritzapean, Celia Baños pianojolea eta Anabe Hernandez narratzaileagaz, Piccolo String Camerata orkestak Karl Jenkins konpositorearen *A Tribute to Women* kontzertua eskainiko dau.

Kontzertuan, Jenkinsen lan adierazgarrienetako batzuk kantauko ditu abesbatzak, andren unibersoaren inguruko aukeratutako poema errezitaldiagaz lagunduta. Rossini abesbatzak berak ekoiztuten dau hau ikuskizunau.

## DUNBA

### Dualiza proiektua: Hezkuntza barrikuntza zentzumen anitzeko gelan. Zikloarteko erronka eta erronka soziala

Zulaibar Lanbide Ikastegia

Arratiako bailaran, Zulaibar Lanbide Heziketako Zentroa dagoan lekuan, biztanle zaurgarrienen beharretara egokitutako hezkuntza eta gizarte zerbitzuen eskaera handia dago: adinekoak, desgaitasuna daukien personak eta hezkuntza premia bereziak dituen haurrak (HPB). Ha-ta guzti be, eskualdean ia ez dago behar horrei modu integralean erantzungo deuten baliabide iragarririk. Egoera batez be kritikoa da Igorreko Eskola Publikoan; izan be, oin dala gitxi gela egonkor bat sortu dau HPBak dituen ikasleentzat, baina ez dauka behar adinako baliabiderik eta laguntzarik arreta osoa eskaintzeko.

Testuinguru honen aurrean, Zulaibarreko gela multisensoriala, hutsune hau beteteko eta komunitadeari balio erantsia emoteko aukera parebako legez sortu da. Holan sortu da Dualiza proiektua: Hezkuntza Berrikuntza Gela Multisensorialean. Ekimen horren helburua ez da bakarrik eskualdeko antzatsunagazko arreta indartu-

tea, baizik eta ikasle gazteak be funtsezko gaitasunetan trebatzea, etorkizunean gizarte, hezkuntza eta teknologia esparruetan lan munduratzea sustatzeko.

Dualiza proiektuak erronka barriztaile bat planteetan dau: lau Heziketa ziklo desbardinaren arteko lankidetzeta —Menpekotasun Egoeran dauden Personentzako Arreta (APSD), Integrazio Soziala, Automatizazioa eta Robotika Industrial (ARI) eta Fabrikazio Mekanikoko Diseinua—, material inklusiboak garatzeko eta jarduera egokituak diseinetako. Helburua HPBko ikasleak Hezkuntza arloko esku-hartzea hobetzea da, ez bakarrik Igorren, baita eskualdeko beste zerbitzu batzuetan be, esku-hartze eredu transferigarri bat sortuz.

Prestakuntza ziklo bakoitxak eginkizun berezia dauka proiektuan, eta diziplina arteko lankidetzeta sustatzen dau, ikasleen artean gaitasun tekniko eta zeharkakoak garatzea errazten dauana. APSD zikloa arduratzen da jarduerak diseinetaz eta gela multisensorialaren beharretara

egokitutako materialak sortzeaz. Gizarte Integrazioko ikasleek Igorreko ikasleen gaitasunen eta mugen azterketa sakona egiten dabe, Hezkuntzako esku-hartzea ebaluatzu eta hobekuntzak proposatuz. Diseinuko zikloak, bestalde, esperientzia multisensoriala personalizetako beharrezkoak diran elementu fisikoak diseinetan ditu ordenagailuz; Alko ikasleek, barriz, material horreek modu integraduan konektetako programetan ditue, ingurunea eta erabilzaileen esperientzia optimizauz.

Hezkuntza esperientzia honek Erronketan oinarritutako Ikaskuntza Kolaboratiboa eta Ikaskuntza-Zerbitzua (ApS) konbinetan ditu. Metodologia horreek ikasleei benetako arazoak konponduten ikasteaz gainera, komunitadeari zuzenean laguntzea ahalbidetzen deustie. Ikasleek hainbat trebetasun garatzen ditue, esate baterako, talde lana, komunikazio eraginkorra eta sormena, eta, aldi berean, alkatasuna eta erantzukizun soziala lango balioak indartzen ditue. Behar erreal eta nabari bateri ekitean, proiektua tokiko

aldaketaren motor bihurtzen da, eta garapen komunitario inklusiboago eta jasangarriago baten alde egiten dau.

Proiektu honen eragina esparru akademikotik harago doa. Zulaibarreko ikasleek, urtenbide inklusiboak sortzean modu aktiboan parte hartzean dabenez, enplegarritasuna eta etorkizun profesionalean erronka konplejei aurre egiteko gaitasuna hobetzen daben gaitasun kakoak lortzean ditue. Aldi berean, zentzumen anitzeko gela eskualde osorako baliabide iragarri bihurtzen da, hainbat kolektibo zaurgarri mesede eginez eta tokiko laguntza sarea zabalduz.

Ekimen horren iraunkortasuna eta errepikagarritasuna bermatzeko, hainbat ekintza planifikatu dira, prozesuaren dokumentazio zehatza, beste ikastetxe batzuentzako prestakuntza tailerrak antolatzea eta esperientziak eta baliabideak trukatzeko erraztuko dauan lankidetzeta sare bat sortzea barne. Holan, Dualiza: Hezkuntza Berrikuntza Gela Multisensorialean proiektua beste testuinguru batzuetara trans-

feridu eta egokitu daiteken eredu moduan aurkezten da, Hezkuntza eta gizarte inklusioa bultzatuz hainbat inguruetan.

Gainera, proiektuaren zabalkunde komunikazio estrategietan oinarrituko da, besteak beste, tokiko irratietan alkarrizketak, webgunean eta sare sozialetan argitalpenak, eta komunitadeari zabalduetako aurkezpen jardunaldiak antolatuko dira. Holan, proiektuaren inpaktua ikustarazoteaz gainera, aliantzak sortzea eta eragile barriak inplikatzeko sustatzen da, gizarte bidezkoago eta solidarioago bat eregiteko erronkan.

Azken batean, Hezkuntza eta gizarte eraldatzeko ikuspegi integrala da proiektu hau. Inguruko beharrik gazteen prestakuntzeagaz lotzean, Zulaibarreko gela multisensoriala barrikuntza gune bihurtzen da, non Hezkuntza aldaketa eragile bihurtzen dan, ondoizate kolektiboa eta bizitza osoko ikaskuntza sustatuz.





# KOMIKIA

Iman Olatu



## IRAGARKI LABURRAK

### DANERIK

#### LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Oلابارri auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonon.

#### GARAJE PARTZELEA ALOKAIRUAN

Garaje partzela bat alokatzen da Igorren, anbulategi atzeko parkean. Interesatuak 629 307 400 telefonora deitu.

#### GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

#### YOGA ETA COACHING

Gorputza indartu eta flexibilizatu, zure amesetako etorkizuna sortu, zure barne bakea topatu eta bizitza orekatu. *Online* klaseak. Kontakua: 672 873 452 (Nerea).

#### BASERRIA SALTZEAN DA

Zeberion 750 m<sup>2</sup>ko baserrietxea salduen da inguruan landa zabalagaz. Interesdunek deitu 609 457 016 telefonora.

#### LONJEA SALDU EDO ALOKATZEN DA

Lonjea saldu edo alokatzen dot Igorreko Lehendakari Agirre 9 zenbakian. Interesdunek 674 607 474

telefonora deitu.

#### LANA

#### FRANTSESEKO KLASEAK ONLINE

Adin eta maila guztiak. Bakarka zein taldeka. Frantses filologian graduatua. Interesdunek deitu: 610 374 854 (Nerea).

#### ALEMAN ESKOLAK EMOTEN DIRA

Esperientzia luzeko alemaniarak adin eta maila guztietao eskolak emoten ditu, *online* eta aurrez aurre. Interesdunek deitu: 610 863 369.

#### UMEAK JAGOTEN DODAZ

Esperientziadun andra euskalduna, umeak zaintzeako prest dago. Interesautu egotekotan, deitu 686 341 677 telefonora.

#### KLASEAK EMOTEN DODAZ

Lehen Hezkuntzako gradua PT aitamanageraz ikasi dot. Lehen Hezkuntzako ikasleei edozein arlotan klase partikularrak emoten deutesadaz. Interesdunek deitu edo idatzi 693 064 726 telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Bitelchús Bitelchús* filmarako.

Amaia Jugo (Arantzazu)  
Jurek Ziemkiewicz (Zeanuri)



2

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Suirrealismoa* ikuskizunerako.

Beinat Anzola (Igorre)  
Bego Pedrosa (Areatza)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 22 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | [www.begitu.eus](http://www.begitu.eus) | [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Tel.: 94 631 73 65 - VILLARO

**NAIARA** Hortz Klinika  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
94 631 52 26

**BIZARGINAK** 1976  
BIZARGINTZA-ILEAPAINDEGIA  
94 607 78 33  
LEHENDAKARI AGIRRE 9, IGORRE

ASEGURUAK: **ZUZENBIDE**  
AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAZ KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

**KIRRU** ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROSER  
SABINO ARANA 38 IGORRE  
Tlf. 94 631 92 00

begitu **eus**

**Jose Luis Corbacho**  
pintura lanak  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tel.: 94-673-70-87  
Tel.: 609-79-40-54

**ZEKUTZE** JATETXEA  
Sabino Arana, 24  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel.: 94 631 52 83  
[zekutzejatetxea@hotmail.com](mailto:zekutzejatetxea@hotmail.com)

begitu **eus**

**IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!**

Informazioa: **649 979 115**  
eta [inigoirua@begitu.eus](mailto:inigoirua@begitu.eus)

**BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!**

**2024AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!**

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2024an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Ondino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

**Zertu Kultur Elkarte** Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_  
 Helbidea: \_\_\_\_\_  
 Telefonoa: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_  
 Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_  
 Aukeratu urteko kuotea:  40€  60€  80€

\*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

[begitu.eus](http://begitu.eus)

Edo e-mailez, bialdu datuok: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.